



IKASTETXEAREN PROIEKTU DIGITALA

Ikastetxearen izena:

IRUARTETA HLHI

Ikastetxearen kodea:

015361

Data:

2023(e)ko urtarrilaren 30(a)





1. SARRERA

Ikastetxearen testuingurua

Kokapena, mailak, ikasleria, klaustroa, familien maila sozioekonomikoa eta baliabide teknologikoak, ikastetxearen ikuspegia eta baloreak...

ESKOLAREN IZAERA

Iruarteta eskola Bilboko D ereduko eskola publikoa da. Udalak ardura du eskolarekiko, eraikina eta mantenua berea baita. Euskal Autonomi Erkidegoko hezkuntza sarean dagoen eskola publikoa izanda, Hezkuntza Sailaren ardurapean gaude. Bilboko Miribilla, San Adrian eta Zabala auzoen artean dago.

IRUARTETA ESKOLAKO PRINTZIPIO ETA BALOREAK

- Pertsonaren garapen integralaren sustatzailea: hezkuntza emozionala. Euskalduna. Eleanitza. Hizkuntzen tratamendu integratua. (10/1982 Legea, azaroaren 24koa)
- Hezkidetzagilea. Gizonen eta emakumeen arteko berdintasun-eremu egiazkoa. Plurala. Inklusiboa. Giza duintasunaren balioa, funtsezko erreferente etiko gisa. (3/2005 Legea otsailak 18koa). Parte-harzitua. Familien, ikasleen, eta ikastetxeko antolaketako eta funtzionamenduko profesionalen arteko lankidetzaren sustatzen duena.
- Ekitatiboa. Kalitatekoa. Aukera-berdintasuna bermatzailea. Ahalmenak eta gaitasunak ahal beste garatzen duena.
- Bizikidetzaren sustatzailea. Giza eskubideak eta bizikidetzaren demokratikoaren printzipioak dira erreferentzia.
- Ikaslea bere hezkuntzaren protagonista izatea, berdinen arteko lankidetzaren oinarritua.
- Sormena eta ekiteko gaitasuna bultzatzen duena.

Azpiegiturak

Ikastetxearen hornikuntza teknologikoa, konektibitatea, plataformak, zerbitzu digitalak eta mantenua...

Ikastetxeak badu internet-en sartzeko eta konektatuta egotea sare osatuta. Sare hori eskolako zerbitzari batetik abiarazten da, zerbitzua emoten, bai ethernet baita WIFI bitartez. Hauen mantenua eta zerbitzua, CAU-k arduratzen da. Eskolan badaude ikasle bakoitzarentzako Chromebook bana 3. ziklo osoan. Badago informatika gela bat 20 ekipo birziklatuekin eta pantaila digital batekin. Eskolako gela bakoitzak bere irakaslearen ekipoa eta pantaila digitalez ornituta dago. Baita HPB geletan ekipo bana gutxienez. Zuzendaritzak badu Voicelp telefonoa ere.

Proiektuaren justifikazioa

Proiektuak nola lagunduko dio ikastetxeari eta zergatik parte hartzen da.

Alde batetik, material digitalak prestatzea eta erabiltzea lehentasuna da. Online ikasteko potentzial guztia behar bezala garatu behar da, eta, horretarako, tresna didaktikoak eduki behar dira, azpiegiturak eta irakasleen ezagutza hobetu behar dira eta sistemako ikasle guztien konektibitatea ziurtatu behar da.

Ahalegin handiagoa egin behar da zentroaren digitalizazioan eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien inguruko prestakuntzan (1. helburua).

Helburu horrek bi funtzio ditu: material didaktikoak baliatzea webgunean dauden etapa eta maila guztietarako, eta eskuratutako ezagutza informatikoak praktikan jartzea euskararen erabilera indartzeko eta beste gaitasun guztiak lortzen laguntzeko.

Elaborazio prozesua eta lan-taldea

Lehentasunak zehaztu.

Planifikazio maila zehaztu.

Nor izango da eragilea?

Digitalizazio batzordea sortu da eta Digitalizazio arduradunaren figura ere, hau izango delarik elaborazio prozesuaren dinamizatzailea eta eragilea. Batzorde hau astean behin elkartuko da.

Proiektu Digitalak Hezkuntza Proiektuari eta Urteko Planari egiten dion ekarpena

Irakaskuntzan:

Gailu eta baliabide digitalak aplikatzea irakaskuntza-prozesuan, irakaskuntza-jardunbideak hobetzeko. Irakaskuntza digitaleko esku-hartzeak behar bezala egituratu, kudeatu eta antolatzea. Irakaskuntzarako formatu eta metodo pedagogiko berriak probatu eta garatzea.

Orientazioa:

Tresna eta zerbitzu digitalak erabiltzea ikasleekiko elkarrekintza –banaka zein taldean hobetzeko, ikaskuntza- saioen barruan eta haietatik kanpo. Teknologia digitalak erabiltzea orientazio eta laguntza egokia eta espezifikoa emateko. Orientazioa eta laguntza emateko forma eta formatu berriak probatu eta garatzea.

Elkarlanean ikastea:

Teknologia digitalak erabiltzea ikasleen arteko elkarlana sustatu eta hobetzeko. Ikasleak trebatzea talde atazetan teknologia digitalak erabil ditzaten, komunikazioa, elkarlana eta ezagutza elkarlanean sortzeko gaitasuna hobetze aldera.

Ikaskuntza autoerregulatua:

Teknologia digitalak erabiltzea autoerregulatutako ikaskuntza prozesuei laguntzeko, hala nola ikasleei aukera emateko beren ikaskuntza planifikatu, ebaluatu eta horretaz hausnartzeko, aurrerapausoak ikusteko, ezagutza partekatzeko eta sormenezko konponbideak bilatzeko.



2. IKASTETXEAREN EGOERAREN ANALISIA

Errealitatearen azterketa, prozesuetan IKTen erabilerearen gaineko hausnarketa.

SELFIE edo beste autoebaluazio tresna batetik jasotako emaitzen hausnarketa.

Selfian eta eskolako egunerokotasunean oinarrituko honako hausnarketa. Gure eskolak aspladi heldutasun digital ertaina lortu zuen, horrek eskolako azpiegitura minimoa, irakaslearen formakuntza teknologiko minimoa eta ikaslearen esku dagoen teknologia bermatzen du.

Iruarteko SELFIn agertzen diren datuen balorazioak 0tik 5era doaz, 0-2,9 ahuleziak izanda eta 3-5 indarguneak direlarik. Gure indarguneen artean gehien baloratzen dena azpiegituren ingurukoa da, baita internet sarbide ona eta gailu digitalen ingurukoa. Ahuleziak ordea, irakaskuntza digitalari aukerak zabaltzea, elkarlan digitala eta estrategia digitalik ez izatea, dira. Esperinetziak esaten du, umeen jarrera teknologia berriekin ikasteko ezinhobe delako, baina ordea ikasteko baliabideen falta nabaritzen zaiela, batez ere, irakaslearen teknologia erabilera mugatua delako.

Hona hemen [SELFIA](#)

AMIA analisia

Indarguneak, ahultasunak, aukerak eta mehatxuak.

Faktore negatiboak

Ahuleziak (barne-faktoreak)

Elkarlana

Ikasleen arteko lanen iruzkinak ez baloratu

Teknologia etxetik kanpo ikasteko helburuarekin

Irakasleek teknologiari egiten dioten harrera.

Irakaskuntza digitala aztertzeke denbora.

Irakaskuntza modalitate berriak

Estrategia digitala.

Mehatxuak (kanpo-faktoreak)

Irakasleentzako denbora falta

Konpetentzia digital nahikoa ez duten irakasleak

Ekipamendu digital eskasa

Ikasleek sarbide mugatua izatea gailu digitaletara

Ikasleek etxean teknologia erabiltzerakoan ziurtasun falta

Faktore positiboak

Indarguneak (barne-faktoreak)

Ikastetxearekin komunikatzeko teknologia digitalak erabiltzea.

Ikastetxeko azpiegitura digitala: Pantaiak, ordenagailuak...

Internet sarbide ona ikasteko

Laguntza teknikoa arazoak daudenean.

Ikaskuntzarako gailu digitalak

Datuak babesteko sistema.

Baliabide digitalen sormena irakaskuntza metodoa indartzeko

Aukerak (kanpo-faktoreak)

Teknologiaren erabilera eskolan

Ikasleek teknologiaren erabilera etxean

Dozenteeek hurruneke irakaskuntzarako materiala prestatzeko baliabide teknikoak

Teknologieta garapen profesionala era desberdinetan jasotzea.

Eskolak prestatzeko ziurtasuna

Komunikatzeko gaitasuna digitalki
Teknologiaren erabilera bai eskola esparruan bai kanpoan
Ikasleek gailuak ikastetxetik kanpo eskuratzea
Ikasleek laguntzarik gabe aplikazioak erabiltzeko gaitasuna

Autoebaluzioaren ondorioak

Hausnarketa eta **AMIA** tresnatik ateratako ondorioak.

Indarguneak optimizatu aukerak areagotzeko

Gure indargunerik handiena azpiegitura digitalak, internet sarbidea eta tresna digitalak dira. Horietaz baliatuz hainbat aukera zabaltzen dira "zirrikitu digitala"-rekin apurtzeko eta hezkuntza komunitate guztiari zabaltzeko. Komunikazio digitala beste indargune bat delarik, jarraitzea horretan sakontzen ikusten dugu aukera. Adibidez hezkuntza sailak planteatutako sare sozialak erabiliz, Moodlegune-a esate baterako.

Ahuleziei aurre egin aukerak aprobetxatzeko

Elkaralana sustatzeko, ahulezi horri aurre egiteko, irakaslearen hurruneko irakaskuntza eta ikasleen etxetik lan egiteko gaitasunaz baliatuko gara.

Indarguneak optimizatu mehatxuak indargabetzeko

Gure indargune diren atal horiek potentziatzen jarraitzea planteatzen da helburu desberdinekin, mehatxuei aurre egiteko. Iruarteta eskolak dauzkan indargunerik handienak errekurso eta azpiegitura digitalak dira. Matxurak komunikatzeko eta konpontzeko sistema digitalizatu eta eraginkor batek, denbora aurreztu eta gailuak erabilgarri jartzen ditu, ikaskuntzan parte hartzeko prest utziz.

Ahuleziei eta mehatxuei aurre egin

Estrategiak disenatu, gure konpetentzia digitala areagotzeko. Gehienetan, uste baino gaitasun digital handiagoa daukagu, eta horrek etsi egitea eragiten digu. Lankidetzan digitalki aritzea arinduko digu sentimendu hori.



3. HELBURUAK ETA EKINTZAK

LG Lidergoa eta gobernantza

Helburua		
Ikastetxeko estrategia digital bat garatzea, lidergo partekatu batekin teknologien integrazioa ikastetxe mailan eta teknologia nagusien erabilera eraginkorrean trebatzeko.		
Deskriptorea	Epea	
LG 1.3 Plan estrategikoan jasota dago aro digitaleko ikaskuntza	2025/06/30	
Adierazlea	Mota	Helmuga
LG 1.3 A1 Ikastetxeak bere oinarrizko dokumentazioan (Urteko Plana, IHP, ...) sartzen ditu irakasle-tald	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Plan digitala garatzea	Gailu digitalak. Koordinazio saioak	Digitalizazio batzordea	2023/06/16	Prozesuan (%80-99)
Estrategia digitala ezartzearen eragina neurtzeko jarraipen- eta ebaluazio-sistema bat ezartzea.	Gailu digitalak. Koordinazio saioak	Zuzendaritza taldea. Digitalizazio batzordea. Berriztapen arduradunak	2025/06/30	Prozesuan (%20-39)

Helburua		
Zuzendaritza eta klaustroaren arteko koordinazioa eta konpromisoa sustatzea, digitalizazio batzordearen bidez elkarlaean, inplementazio digital eraginkorra lortzeko.		
Deskriptorea	Epea	
LG 3.1 Inplementazio-planaren inguruan elkar aditze eta konpromiso bat dago	2024/06/30	
Adierazlea	Mota	Helmuga
LG 3.1 A1 Ikastetxeak irakasleek parte hartzeko egitura bat zehaztu du, bere estrategia digitala garatu	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Digitalizazio Batzordearen aldizkako bilerak antolatzea, beharrezko estrategiak eta ekintzak elkarrekin eztabaidatu eta planifikatu ahal izateko.	Biltzeko saioak Gailu digitalak.	Zuzendaritza taldea Digitalizazio batzordea	2025/06/30	Hasita (%1-19)

II Irakaskuntza eta ikaskuntza

Helburua

Ikasgelan ikasteko teknologia digitalak integratzea, irakaskuntza eta ikaskuntzako praktikak eguneratzen eta berritzen, ikas-egoerak ebazten laguntzeko.

Deskriptorea	Epea	
II 2.4 Eredu pedagogikoak hedatzen dira	2025/06/30	
Adierazlea	Mota	Helmuga
II 2.4 A2 Diziplinarreko proiektuak urteko programazioetan eta unitate didaktikoetan jasota daude.	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Ikas egoeretan baliabide digitalak erabili	Baliabide digital desberdinak. App-ak	Klaustrokideak Berriztapen arduradunak(BeAk)	2025/06/30	Prozesuan (%60-79)
Irakasleak teknologia digitalen erabileran prestatzea	Prestakuntza saioak	Klaustrokideak Berriztapen arduradunak(BeAk)	2025/06/30	Prozesuan (%80-99)
Jarduera eta material didaktiko digitalak diseinatzea: teknologia digitalak erabiliko dituzten jarduera eta material didaktikoak diseina daitezke, ikasleen ikaskuntza errazteko eta hezkuntza-egoerak konpontzeko	Aplikazio digitalak	Klaustrokideak Berriztapen arduradunak(BeAk)	2025/06/30	Prozesuan (%20-39)

GP Garapen profesionala

Helburua

Langileen etengabeko garapen profesionala maila guztietan erraztea irakaskuntza eta ikaskuntza eredu berriak garatzen eta integratzen laguntzeko teknologia digitalak erabiltzen.

Deskriptorea	Epea	
GP 1.2 EGPa maila guztietako pertsonalarentzat eskaintzen da	2025/06/30	
Adierazlea	Mota	Helmuga
GP 1.2 A1 Ikastetxeak hezkuntza-komunitatearen eskura jarri ditu zibersegurtasunari, identitate digital	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Zentroko langileentzako etengabeko prestakuntza-programa bat ezartzea, teknologia digitalak erabiliz	Ikastaroak	Digitalizazio batzordea	2025/06/30	Detektatua
On-lineako prestakuntza sustatzea, eta ikastetxeko langileei on-lineako ikastaroak eta egiaztatutako ziurtagiriak egiteko aukera ematea, beren garapen profesionala hobetzeko.	On line ikastaroak	Digitalizazio batzordea	2025/06/30	Prozesuan (%20-39)

EJ Ebaluazio jardunbideak

Helburua		
Administrazioak baimendutako tresna digitalak erabiltzea ikasleen kalifikazioak erregistratzeko eta prozesatzeko, ebaluazioa modu sozialean ulertuta, bakoitzaren prozesuaren kontzientzia eta hausnarketan parte hartuta.		
Deskriptorea	Epea	
EJ 1.3 Autoebaluazioa eta berdinen arteko ebaluazioa sustatzen da.	2025/06/30	
Adierazlea	Mota	Helmuga
EJ 1.3 A1 Ebaluazio-, autoebaluazio- eta koebaluazio-prozesuak garatzeko erabiliko diren teknologia digi	Ehunekotan	%75

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Administrazioak baimendutako tresna digitalen erabilerari buruzko gaikuntza-saio bat egitea irakasleentzat.	Formakuntza saioak	Berriztapen arduradunak (BeAk) Zuzendaritza taldea	2025/06/30	Detektatua
Tresna digital horiek ikasleen ebaluazioan erabiltzeko zereginak eta jarduerak planifikatzea, eta haien ikaskuntza-prozesuaren gaineko hausnarketa eta kontzientzia sustatzea.	Tresna digitalak Saio espezifikokoak	Digitalizazio batzordea Klaustrokideak	2024/06/30	Detektatua

EC Edukiak eta curriculuma

Helburua

Aldaketa metodologikora eta metodologiara bideratutako prestakuntza-jarduera bat diseinatzea, ikasgelen digitalizazioa eta antzemandako beharretara egokitua.

Deskriptorea	Epea	
EC 2.5 Curriculum arloen bidez argi eta garbi hornitzen da ikaskuntza digitala	2025/06/30	
Adierazlea	Mota	Helmuga
EC 2.5 A1 Ikastetxearen curriculum-proiektuan, arlo edo ikasgai desberdinak garatzean, gaitasun digita	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Prestakuntza-saio edo tailer bat egitea, metodologia-aldaketari, ikasgelen digitalizazioari eta antzemandako beharretara egokitzeari buruzko gaiak lantzeko.	Prestakuntza saioak	Digitalizazio batzordea	2025/06/30	Detektatua

EN Elkarlana eta networking-a

Helburua

Elkarlanerako eta komunikaziorako kultura garatzea, partekatze eta modu eraginkorrean ikastea ikastetxearen mugen barruan eta mugetatik kanpo.

Deskriptorea	Epea	
EN 1.4 Ezagutza trukatzeko jarduera eta ekitaldietan parte hartzea sustatzen da	2025/06/30	
Adierazlea	Mota	Helmuga
EN 1.4 A1 Ikastetxeak eremu digitalean esperientziak trukatzeko jardunaldi batzuk planifikatu ditu, ingl	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Diziplina arteko lantaldeak sortzea, arlo desberdinetako irakasleek ikasgelan tresna digitalen erabilerari buruzko baliabideak, estrategiak eta esperientziak partekatze eta lankidetzan aritzeko.	Tresna digitalak	Digitalizazio batzordea Klaustrokiadeak	2025/06/30	Detektatua
Irakasleen, gurasoen eta ikasleen arteko komunikazioa sustatu daiteke plataforma digitalen eta sare sozialen bidez, informazioa eta jardunbide egokiak partekatze.	Sare sozialak Plataforma digitalak	Digitalizazio batzordea Klaustrokiadeak	2025/06/30	Detektatua

AZ Azpiegiturak

Helburua

IKTak mantentzeko protokoloa egituratu eta digitalizatu bat inplementatzea, klaustroko komunikazio-tresnen bidez (irakasle.eus posta, ikasgela birtuala...).

Deskriptorea

AZ 2.6 Agerikoak dira laguntza teknikoa eta erabiltzaileari arreta ematea

Epea

2025/06/30

Adierazlea

AZ 2.6 A2 Irakasleen harrera-dokumentuan, gorabeherak eta matxurak komunikatzeko eta kudeatzeko

Mota

Bai/Ez

Helmuga

Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
IKTak mantentzeko protokoloa ezartzeko erabiliko diren komunikazio-tresnak identifikatzea.	Eskolako Site-a eta Drive-a.	Digitalizazio batzordea	2024/06/30	Prozesuan (%60-79)
Ikastetxearen mantentze prebentiboaren kultura sustatzea, IKTen zaintza eta erabilera egokian islatuko dena.	Digitalizazio batzordea	Digitalizazio batzordea	2025/06/30	Detektatua
IKTak mantentzeko protokolo berria modu eraginkorrean jakinaraztea klaustro osoari eta, oro har, hezkuntza-komunitateari.	Digitalizazio batzordea	Digitalizazio batzordea	2025/06/30	Hasita (%1-19)

IB Ikastetxeko berariazkoak

Helburua

--

Deskriptorea

Epea

--	--

Adierazlea

Mota

Helmuga

--	--	--

Ekintzak

Baliabideak

Arduradunak

Epea

Egoera

--	--	--	--	--



4. PROIEKTUAREN EBALUAZIOA

Helburua	Noiz ebaluatu	Nola ebaluatu	Nork ebaluatu	Betetze maila	Hobetzeko proposamenak	
LG	Ikastetxeko estrategia digital bat garatzea, ldirgo partekatu batekin teknologien integrazioa ikastetxe mailan eta teknologia nagusien erabilera eragin korrean erabiltzeko.	1. FASEA: Proiektua martxan jarri: Urtarrilaren 30 2. FASEA: Ekintzen ebaluazioa eta aurkezpena: Ekainaren 17	IPDa Helburuen lorpen mailak	Digitalizazio batzordea	Prozesuan (%80-99)	
LG	Zuzendatza eta klastroaren arteko koordinazioa eta konpromisoa sustatzea, digitalizazio batzordearen bidez elkarlanean, implementazio digital eragin korra lortzeko.	25-06-30	IPDa bera Selfia	Zuzendaritza taldea Digitalizazio batzordea	Detektatua	
II	Ikasgelan ikasteko teknologia digitalak integratzea, irakaskuntza eta ikaskuntzako praktikak eguneratzen eta berritzen, ikas-egoerak ebatzen laguntzeko.	25-06-30	Ikas egoerak aztertuz	Berritzapen arduradunak (BeAk) Klaustrokideak	Detektatua	
GP	Langileen etengabeko garapen profesionala maila guztietan erraztea irakaskuntza eta ikaskuntza eredu berriak garatzen eta integratzen laguntzeko teknologia digitalak erabiltzen.	25-06-30	Irakaskuntza eredu barriak	Digitalizazio batzordea	Detektatua	
EJ	Administrazioak baimendutako tresna digitalak erabiltzea ikasleen kalifikazioak erregistratzeko eta prozesatzeko, ebaluazioa modu sozialean ulertuta, bakoitzaren prozesuaren kontzientzia eta hausnarketan parte hartuta.	25-06-30	Plataforma digitalen erabilera	Klaustrokideak Zuzendaritza taldea Berritzapen arduradunak (BeAk)	Hasita (%1-19)	
EC	Aldaketa metodologikora eta metodologiara bideratutako prestakuntza-jarduera bat diseinatzea, ikasgelan digitalizazioa eta antzemandako beharretara egokitua.	25-06-30	Prestakuntza jarduerak	Digitalizazio batzordea	Prozesuan (%20-39)	

EN	Elkarlenerako eta komunikaziorako kultura garatzea, partekatze eta modu eraginkorrean ikastea ikastetxearen mugen barruan eta mugetatik kanpo.	25-06-30	Komunikazioaren balorapena	Digitalizazio batzordea	Detektatua	
AZ	IKTak mantentzeko protokolo egituratu eta digitalizatu bat inplementatzea, klustroko komunikazio-tresnen bidez (irakasle.eus posta, ikasgela birtuala...).	25-06-30	IKTeen egoera baloratzuz	Digitalizazio batzordea	Prozesuan (%20-39)	
IB						